

GREGOIRE EPPHERRE (1929 - 1974)

Gregoire Eppherre, Euskaltzain laguntzailea, Gilen Eppherre jaun kallonje eta euskaltzainaren anaia zen.

Altzühürün sortua 1929-ko urtarrilaren 22-an, Mauleko ikastegian eta Baionako apezgaitegian eskolatua. 1952-ko ekainaren 29an apez egina. Ondoko irailaren 23-an Baionako "Saint Louis de Gunzague" ikastegirat izendatua. 1953-ko abuztuan, "Institut Catholique de Toulouse" delakorat igorria. 1958-an "licenciè ès sciences" itzultzen da Tolosatik eta irakasle ezartzen dute Mauleko ikastegian. Bihotzeko gaitz batek eraman du 45 urtetan 1974-ko urriaren 5-ean. Ehurzte ederrak ukan ditu; jaun kargudun hainitzekin, ehun apezegoi goiti bazen, jaun apezpikua buru, kantu guziak eskuaraz.

Gregoire Eppherre, bere apez dohainak bestalde, gizon argitua zen bai matematiketan, bai filosofian, bai musikan; alemanez ederki mintzatzen zen; astero biltzen zituen Xubero-ko berriak eta "Herria" astekarian "üskaraz" emaiten. Mauleko ikastolan laguntzale herriz-herri üskal kantore xahar biltzale eta erakusle, euskara batuaren sustatzale, asmatzen gi-nuen euskaltzaindiak lagun langile sukar bat ukanen zuela urte askorentzat.

P.Lafitte